



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
Landa-eremua
eta Klima.

GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA. Jarraipen batzordea

Urriak 10, 15.30ak Aldundia. Donostia

Bertaratutako eragileetako ordezkariak: Sebastian Zurutuza (Aldundia), Mikel Pagola (Aldundia), Naiara Goia (Arantzazulab), Xaber Arruti (Aldundia) Arantxa Mendiharatek (Deliberativa) Xabier Iraola (ENBA), Ibon Antero (Mondragon), Piter Encinas (Ekolojistak Martxan) , Arantxa Ariztimuño (Aldundia), Arantzazu Martiarena (Iurgintza), JM Lete (Abelur), Javier Buselo (Elkarrekin), Mikel Etxeberria (Aranzadi), Igone Lamarain (EHbildu), Iurre Peñagarikano (Landaola) Gurutze Etxezabal (EUDEL, Orexako alkatea), Yago Bermejo (Deliberativa), Garikoitz Nazabal (EHNE), Malen Dominguez (TMeLab), Urko Aiartza (TMeLab).

SARRERA

Arantxa Mendiharatek ongietorria eman eta Jarraipen Batzordeko 2 bilera dela azaldu du hau, herritarren batzarra antolatzeko, gaurko gai ordena azaldu du azaldu du, eta orain arteko urratsen azalpena, emango dela lehenik adierazi.

Eskertu ditu egin diren ekarpenak orain artean, galderak bidali ziren eta batzuk erantzun dituzte, elkarrizketak ere izan dira Deliberativako *Yago Bermejorekin* eta balio izan dute edukien batzordea elikatzeko.

1. ORAIN ARTEKO EMANDAKO URRATSEN AZALPENA

Mikel Pagola:

Egindako urratsak azaldu dira: egitasmoa publiko egin zen irailaren 20ean eta igorri da txosten bat prentsak jasotakoari buruz.

Datuen pribatutasuna dela eta Gipuzkoako 88 herrietako jendearengana iristeko, 15.000 gutun ogasuneko errolda fiskala erabiliaz zabaldu dira. Hauek ez dira izan nominala, izen abizenekin, baizik eta etxeei zuzenduta, etxe horietan 16 urtetik gorako norbait bizi dela jakinez egin dugu.

124 herritarrek eman dute izena oraingoz zozketan partehartzeko. Etxe bakoitzetik batek parte hartu dezake bakarrik.

Ondoren zozketa egin beharko da eta horretarako kopurua igotzea nahi dugu. Helburua 32 herritarreko taldea osatzea da. Jadanik Aztiker eta Artaziak fasiladoreak ari dira lanean. Jendeak deitu eta galdetu egiten du, derrigorrezkoa den, mugikortasuna nolakoa, zaintza etab. Galdera hauek erantzuten ari gara.

Zozketa egiteko estratifikazioa egingo da kontuan edukita, sexua, adina, eskualdea, hezkuntza maila, bai eta jarrerazko galdera, gaiaren inguruko interesari buruzkoa.

Urriaren 17 amaituko da izen ematea eta 24rako zozketa eginga eduki nahi dugu horrela partaideei informazioa zabaldu eta , azaroaren 4 eta 5eko lehen batzarrean informazioa irakurrita etortzeko.

2. BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Naiara Goia:

Plangintza eta saio egitura azaldu du.

Lau asteburuak ezarriak daude.

4 saioetako eskaleta pasatu zaie batzordekideei, baina lehen biak erabiliko dira partehartzaileak edukiz formatzeko, partehartzaileei adituek informazioa pasako diete. Bi saioen artean partehartzaileek informazio gehigarria behar badute edo zerbait falta dela baderitzote, berriro ere zabaldu edo osatuko da eta behin begirada aberastua izan ondoren, 3 eta 4 saioak izango dira eztabaidatzeko. 3nean deliberatu egingo dute eta kritikoki aztertuko dituzte dilemak eta adostasunetara iritsi eta 4, saioan gomendioak adostu eta idatziko dituzte. Guzti horretarako fasilazioa izango dute .

3. EDUKIEN BATZORDEKO PROPOSAMENA

Yago Bermejok azaldu du proposamena, edukien batzordeko kiderik ez baitago.

Edukien Batzordeko kideak nor diren gogoratu du.

Edukien blokea azaldu du. Hor jaso da sektorearen egoera aldaketa klimatikoarekin erlaxionatuta. Marko legala eta Aldundiaren eskuduntzak zein diren azalduko da edukian. **Gizarte adierazleak ere. Sektoreak sortzen dituen onurak eta dituen erronka zailtasunak, baita aldaketa klimatikoan** egon daitezkeen erantzukizunak, esternalidade negatiboak, etorkizuneko eszenategiak...

Dokumentu hau jasoko dute partehartzaileek bai eta batzarretan parte hartuko duten adituen zerrenda ere.

Javier Busselo: Laugarren eranskinari buruzko galdera, lehen sektorearen egoera. Herritarren batzarra da, baina galdera horren berri emango da, erantzun ahal izateko irizpide batekin. Une honetan bi gauza interesatzen zaizkio, zer galdetzen den eta zer informazio ematen den. Alde batetik, adierazi du galdera aurrez ezarrita dagoela eta galdera zabaltzeko edo egokitzeke aukera mugatzen dela; bestetik, laugarren eranskineko informazioari dagokionez (etorkizuneko agertokiak), elementu bibliografiko batzuk ematen dira, eta puntu honetan erreferentzia gisa Muruaren ikerketa jartzen da, hainbat aldiz errepikatzen den bibliografia, eta 2006koa denez, 2001eko eta 2003ko datuak biltzen dituena. Beraz, ia 14 edo 20 urte dira, eta ordutik hona gauza asko gertatu dira, eta errealtatea aldatu egin da. Bibliografia modernoagoa eman behar harko litzateke, egungo errealtatea ikusi behar da, eta ez 2006koa.

Yago Bermejok bigarren saioaren edukia azaldu du ere gaineratik: Bertan Diputazioko zuzendaritzek egiten dutena azalduko da eta ondoren etorkizuna.

Azaltzen du ekarpen batzuk egon direla. Horrela, **Maite Aristegik** agroekologiaren perspektiba sartzea eskatu du eta izen batzuk proposatu ditu.

Mikel Etxeberria: aurreko asteburuan Ekotopaketak egin ziren eta ziur hizlari dezente topatuko direla hor, eta genero ikuspegitik eta berdintasun ikuspegitik *Yayo Herrero* pertsona interesgarria izan daitekeela azaldu du.

Pertsona zehaztugabea: Galdetu du zehazki non sartuko liratekeen proposamen hauek egun daukagun estrukturan. Aipatu du ere beharrezkoa dela biografia zerbait modernoagoarekin zabaltzea. Esan duzue Maite Aristegik eta beste izenak eman dituztela, berme batzordeak zer paper du hemen, zer erabaki izango dugu...

Gurutze Etxezabalen aipamena erabakitzeke moduaren inguruan etorri da: nola hartzen dira erabakiak jarraipen batzordearen izenen inguruan.

Urko Aiartzak azaldu du zailtasunak dituela erabakirik emateko izenen eta proposamen inguruan nahiko informazio ez dagoelako.

Yago Bermejok argitu du bigarren txostenari dagokionez lehenengo bezalako dokumentu bat izango dugula eta orduan argiago erabaki ahal izango dugula .

Mikel Etxeberria: natur kontserbazioa eta biodibertsitatea jasotzeko elementua dela ere aipatu du, hori kanpoan dago eta daukaguna kontserbazio ikuspuntutik kontuan eduki behar da . Horrekiko begirada ez da kontenplazten eta iruditzen zaiho beharrezkoa dela, lotuta dago nekazal praktikarekin etab. Gai konplexua da eta ez luke kanpo gelditu beharko.

Yago Bermejo: Edukien batzordearen arazo nagusia da ez dagoela ustategien estentsibitateari edo intesibitateari buruzko daturik, ez dakigula modu argian deskribatzen, zein estentsibo edo intentsiboan den praktika, badakigu mendiko nekazaritza eta abeltzaintza dela, baina ez dago daturik produkzio-modua zein motatakoa den zehazten duenik.

Mikel Etxeberria: Eusko Jaurlaritzak egin zuen bere garaian kartografia bat EAEko habitat guztiena eta hori habitaten kontserbazio egoerari buruzko datuak daude eta habitata gaziki kontserbatua badago hori zerbaiten adierazle da.

Xabier Arrutik gogoratu du galdera baten inguruan ari garela eta horren baitan zer ekarpen egiteari buruz eta ez mahai gainean zer jarri dugun. Saiatu behar dugu kontuan izaten zein den galdera eta kontuan edukitzen hori.

Arantxa Ariztimuño: externalidade positibo eta negatiboez ari da dokumentua , eta gaia beraz inplizituki badago jasota...eta beraz bai barneratuta legoke.

Mikel Etxeberriak dio ez duela gaia desbideratu nahi baizik eta Europak badituela habitat batzuk lehen sektorearekin lotuta daudenak, adibidez sega belardiak. Lehen sektorea bada gai habitat batzuetan eragiteko eta horretaz ari dela dio, ez bestelako kontuez.

Mikel Etxeberriak dio externalidadeen blokean habitatak aipatu daitezkeela bai positibo eta negatiboetan, eta iruditzen zaiola klima aldaketan biodibertsitatea ere kontuan hartu behar da.

Igone Lamarain: erabat logikoa da Mikelek diona, aldaketa klimatikoan kontuan edukitzea zer babestu behar den eta ez, baina kontuan eduki behar dugu.

Piter Encinas: hasteko poz handia ematen dio ekitaldia antolatzeak, pozik dago eta baikorra da, baina egoera horrek zalantzak sortzen dizkio ere. Ez daki noraino heldu daitekeen , ez du aldarrikatuko “una asamblea de listos y listas” baina zalantzak ditu ia herritar arrunten batzar bat gai den honetaz eztabaidatzeko... ez da erraza irtenbideak sortzea.

Zergatik dion hori, ba azkenean gai honek zutabe desberdinak eta lehentasunak dituelako, ez daki hau den leku aproposena horretarako. Lehentasuna nori eman behar diogu errentagarritasunari, edo zerri.. Gipuzkoan %60 basoa da. Ederki, hori klima aldatzeko oso ona da, baina segun nolakoak diren arbolak ona izan daiteke hala ez... ez dakigu zein den hemen gaudenon norabidearen filosofia, naturan lan egiteak ez du esan nahi horrek on egiten gaituenik. Nik, pinuak jartzen baditut naturari kaltea sortuko diot....

Arantxa Mendiharat: Batzorde honen helburua da ziurtatzea, batzarrak jasoko duen informazioa anitza dela. Hau da ziurtatu behar duguna da informazioa anitza jasotzen dela jendeak informatuta erabaki ahal izateko.

Piter Encinas: Galdera egiten du. Besteen iritzia konpartitzea oso gomendagarria izan daiteke. Beraz ez dut jaso besteen ekarpenik.

Arantxa Mendiharat: proposatzen dugu hurrengo asteetan, mezuak irekiak izatea eta denek denen iritzia jasotzea... nahi baduzue partekatuko dugu orain arte jasotakoa eta orain irekiak joango dira.

Mikel Pagola: zalantzan jarri bada Gipuzkoako herritarrak gai diren eztabaidatzeko, nik esango nuke baietz, komeni zaiguna da aurre iritzirik gabe herritarrei gaitasuna ematea erabakitzea.

Xabier Iraola: Faltan bota dut sektorearen ahotsa, sektorearen berri eman behar dela bai baina beraiek ahotsa izanik presente, ez soilik adituena edo erakundeena.

Arantxa Mendiharatek eskatzen du ekarpenak egin dituztenei zehazteko non sartu eta zer bibliografiarekin, beraiek ere konprometitzen dira bigarren saioaren zehaztasuna ematea.... Baina gaur eman diren proposamenak hori ere jasoko da, bai eta baten bat ez den sartu behar edo...

Arantxa Ariztimuñok galdetzen du ia ongi ulertu garan, eta beraz lehen sektorearen inpakto positiboa eta negatiboa jasoko litzatekeela.

Mikel Etxeberriak dio ados dela. Azkenean ez dakigu zenbateko sakontasuna emango zaion-

Urko Aiartzak ere ez du kontraesanik ikusten eta hor sartuko litzatekeela dio.

Garikoitz Nazabalek kezka bat konpartitu nahi du. Foro bat egongo da sektoreaz hitzegiteko baina sektoretik jende gutxi ikusten du. Aurreneko pertsonan dabiltzanak, egunerokoan oso jende kompetentea egon daiteke ere eta faltan botatzen ditu.

Agroekologiaz eta abar arituko direnak ere teknikariak dira baina baserritar gutxi dagoela dio. Urteak daramazkigu gutaz asko hitz egiten baina gurekin ez horrenbeste....

Arantxa Mendiharatek dio posible dela izen gehiago sartzea eta ia aste bete eman dezakegu horri begira.

4. BESTELAKOAK

Azken iradokizuna **Arantxa Mendiharaten** aldetik: Jarraipen batzordean herritar batzarreko bi kide sartzea.

Noiz elkartu: Azaroaren 14ean, 15.30tan lehen saioa pasatu ondoren biltzea proposatzen da.